



Skanerra

Leire Bilbao

Leireren ahotsak artegatasun pixka bat sorrarazten du, errealitatearen ertzean mugitzen da, edo behintzat, hori da eman didan sententzia. Batzuetan, pertsona oso gazte bati entzuten niola iruditu zait, bere bizitza propioan eta hain propioa ez den beste horretan leku baten bila ibiliko balitz bezala. Haren familiarekin loturik dauden poemak “fuerte samarrak” dira; zenbaitetan, zerbait aurpegiatuko balie bezala, azkenean beste zerbait dela irudi arren; esaterako, aitaren absentsia (itsasgizona lanbidez), bere amaren inurri-lana etxea aurrera ateratzeko... Poema batean amak bere alabari (Leireri) zerbait aurpegiatzen diola ematen du, amaren antz handiegia izatea... Gero, lehen atala amaitzen

da eta beste atal batzuk hasten dira, zama emozional horretatik askeagoak. Amatasunarekiko bere harridura erakusten du hainbat alditan, baita emakumearen sexumunduarekiko ere (beti hanka zabalik ibiltzen diren armiarma ttiki eta kezkarri horiek, sarri aipatzen dituenak...).

Biluztasuna. Irakurlearen aurrean ginekologiako bere poemetan bezain erraz biluzten da; “Izerdiaren paisaia” poeman oso irudi polit bat ematen du aditzera, inspirazioak ukitua berau, hauxe: “Izotz guztiek nahi dute ur izan, / ur guztiek lurrun”; “Amarauna” poeman berriz ere entregatzen da, ia-ia irakurlearekin oheratuko balitz bezala, eta berriro egiten du armiarme buruzko bere aipamen bitxi horietako bat; poema honetan eta, oro har, liburu ia osoan, apur bat lausoturik agertzen da, apur bat hautsita, ia-ia fetitxe... “Maitale Imajinarioa”n are eta fetitxeago azaltzen da, gauza debekatuekin amastera gonbidatzen zaituela... Batzuetan, pertsona hauskorra delako sententzia helarazten dizu; ez du, esaterako, Castillo Suárezen indarra edo ziurtasuna (eta hori berez ez da ez ona ez txarra –ziur aski–; bestelako izaera du, besterik ez); “Esan didazu goxo daudela okaranak / baietz erantzun dizut nik” eta horren moduko esaldiekin efektu estrainio bat lortzen du, azalezko gauzetan zerbait sakona egongo balitz bezala baina ulertzen saiatzea mereziko ez lukeena (hobe gauza horiek sentitzea...). Gatzik gabeak iruditu zaizkidan zenbait poema ere topatu ditut, liburua –oro har– gustura irakurtzen bada ere.

Esan bezala, Leireren ahotsa oso benazkoa zela iruditu zait; esan nahi zuena dio. Bere buruaren bila dabilela esango nuke, baina errealitatearekin egiten du topo; eta orduan, haren mundua pittin bat absurdu bilakatzen da, eta horren ondorioz, liburuan tonu triste eta melankoliazkoa nagusitzen da. Batzuetan, Leire oso-oso txikia bilakatzen zelako sententzia izan dut, belar-izpi baten tamaina hartu arte, bere burua bere munduan hobeto “konprimitu” nahi balu bezala... Akaso Leireren mundua azpimundu bat da, edo ate bat, zeinak nonbaitera eramango duen –nik, behintzat, holaxe opa diot, zinez...